

BILBAO EKINTZA, E.P.E.L.**ANUNCIO**

Bilbao Ekintza, E.P.E.L. enpresan hutsik dagoen lanpostu bat betetzeko hautaketa-prozesuko **hirugarren ariketaren behin-betiko kalifikazioa, laugarren ariketaren behin-betiko kalifikazioa, oposizio-fasearen behin-betiko kalifikazioa eta merezimenduak egiaztatzeko epea irekitzea.**

2023ko martxoaren 27an egindako bileran, Nazioartekotze teknikari lanpostu bat (derrigorrezko euskararen 2. hizkuntza eskakizuna duena) jabetzan betetzeko hautaketa-prozesua epaitu behar duen epaimahaiak honako hau erabaki du:

Lehenengoa.- Jakinaraztea ez dela erreklamaziorik egin epearen barruan hirugarren ariketaren, laugarren ariketaren eta oposizio-fasearen behin-behineko kalifikazioen aurka.

Bigarrena.- Oposizioan izangaiek **HIRUGARREN ARIKETAn** lortutako **behin-betiko kalifikazioa** onestea eta jendaurrean jartzea, nahitaezkoa eta ez kanporatzailea eta gehienez ere 10 punturekin baloratutakoa. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa.

Hirugarrena.- Oposizioaren **LAUGARREN ARIKETAn** GAI izan diren izangaiek lortutako **behin-betiko kalifikazioa** onestea eta jendaurrean jartzea, nahitaezkoa eta kanporatzailea, eta euskarako 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzean datzana. Salbuetsita geratuko dira ariketa hori egin behar izatetik hizkuntza eskakizuna badutenak, hala egiaztatuta agertzen bada Euskarako Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan, parte-hartzaileak baimena eman badio beren beregi Bilbao Ekintzari hori horrela dela egiaztatu dezan aipatutako erregistroan. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa, eta baztertu egin dira EZ GAI diren pertsonak.

Laugarrena.- OPOSIZIO-FASEAN GAI izan diren izangaiek lortutako **behin-betiko kalifikazioa** onestea eta jendaurrean jartzea, deialdiaren oinarrietan jaso diren ariketako probak gainditu dituztelako. Zerrenda hori iragarki honekin batera doa.

Bosgarrena.- Jakinaraztea OPOSIZIO FASEKO ariketa guztiak gainditu dituzten hautagaiei, oinarri espezifikoetan ezarritakoaren arabera, **LEHIAKETA FASEARI dagozkion merezimenduak (eskabideak aurkezteko orduan aipatutakoak) egiaztatzeko egiaztagiriak aurkeztu beharko dituztela, hamabost egun balioduneko epean**, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita; hau da, 2023ko apirilaren 21ean, amaituko da epea. Merezimenduak honela aurkeztu ahal izango dira:

- a) Aurrez aurre Bilbao Ekintzako Giza Baliabideen arloko bulegoetan (Nafarroa kaleko 5. zenbakiko 2. solairua), astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.
- b) Bitarteko elektronikoak erabiliz, Eskabidea eta dokumentazioa aurkeztea Erregistro Orokorrean izapidearen bidez, hurrengo esteka honetan: <https://www.bilbao.eus/aytoonline/jsp/tramites/login.jsp?idioma=e&tramite=registrogeneral>

Kanal horretan, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Nahitaezkoa da identifikazio elektronikorako bitarteko bat izatea (ziurtagiri digitala edo BakQ).
- Fitxategiak eransteko, honako hauek hartu beharko dira kontuan:
 - Gehienez ere 10 fitxategi erantsi daitezke eskaera bakoitzeko.
 - Fitxategi bakoitzak gehienez 5MB hartzea gomendatzen da.
 - Guztira, erantsitako fitxategiek ezingo dute 20MB baino gehiago okupatu.
 - Fitxategiaren izenak ezin du izan: tildeak, espazioak, puntuak (.jpg, .doc, .pdf dokumentu-motaren puntu bereizgarria izan ezik), ñ hizkia edo karaktere bereziak (&, %, #, |).
 - Hauek dira onartutako formatuak: pdf, Doc, DOCX, JPG, JPEG, ZIP, 7Z.

Prozesuaren legea diren deialdiaren oinarriekin bat etorritik, gogorarazten da oinarri espezifikoei ezarritako merezimenduak baino ez direla baloratuko, baldin eta alde aurretik onarpen-eskabidean alegatu badira eta eskabideak aurkezteko epea amaitu arte, hau da, 2021eko azaroaren 30era arte.

Bilbon, 2023ko martxoaren 28a

EPAIMAHAIKO IDAZKARIA
ROSA ANA YURREBASO SESTAFE



Hirugarren ariketaren behin-betiko kalifikazioak

BE2018-0002
NAZIOARTEKOTZE TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE INTERNACIONALIZACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Guztira Total
*887***8M	HAWARI	BERRIOZABALGOITIA	YASMIN	4,79

Laugarren ariketaren behin-betiko kalifikazioak

BE2018-0002
NAZIOARTEKOTZE TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE INTERNACIONALIZACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Hizkuntza eskakizuna Perfil lingüístico	KALIFIKAZIOA CALIFICACIÓN
*887***8M	HAWARI	BERRIOZABALGOITIA	YASMIN	C1	GAI

OPOSIZIO-FASEAREN behin-betiko kalifikazioak

BE2018-0002
NAZIOARTEKOTZE TEKNIKARI
TÉCNICO/A DE INTERNACIONALIZACIÓN

NAN / DNI	Lehenengo abizena Primer apellido	Bigarren abizena Segundo apellido	Izena Nombre	Lehenengo ariketa Primer ejercicio	Bigarren ariketa Segundo ejercicio	Hirugarren ariketa Tercer ejercicio	Laugarren ariketa Cuarto ejercicio	Guztira Total	
*887***8M	HAWARI	BERRIOZABALGOITIA	YASMIN	15,41	24	4,79	GAI	44,2	GAI